

## **Sánchez presidentea**

### **Ministro andrea, agintariak...**

**Eguerdi on: Eskerrik asko gonbidapenagatik eta ekonomia irekiaren eta lehiakorraren alde lan egin behar dugulako printzipioa guztiok partekatzen dugun ekitaldi honetan Euskadiri ahotsa emateagatik.**

**Ekonomia nazioartekotua, non enpresak agente nagusi baitira eta erakunde publikook gehitu eta lagundu egiten baitugu jarduera eta enplegua sortzeko eginkizunean.**

**Zuok badakizue elkarlan publiko-pribatuaren formula Euskadiren garapenaren gobernamenturako errezeta izan dela eta dela. Une zailenetan, elkarlan hori areagotu egin behar da, sekula baino gehiago.**

**Ezinezkoa da ekintza-plan bat proiektatzea, pandemia honek utzi dizkigun ikasbideak aintzat hartu gabe. Askok dira. Batik bat, osasun- eta gizarte-arloko ikasbideak. Baina ekonomia eta enpresa-nazioartekotzea ardatz harturik, Covid-ak eragindako krisiak gure lekuan jarri gintuen, eta, une zailenetan –eta, zergatik ez esan, une**

**etsigarrienetan—, gure gaitasunak eta gure industria-ahultasunak azalera zuzena ekarri zuen.**

**Elementurik oinarritzat, maskara, eskura ezina zen gurea bezalako herrialde garatu batean. Orduan, Euskadiko industriak, eta, zehazki, Mondragón Taldeak, Txinan ekoizpen-ezarpena duenak, aukera eman zuen, materiala inportatzeko ez ezik, ekoizpen-makinak erreplikatu eta Estatu osoa hornitzeko fabrikazio-sistema trinkoa muntatzeko ere.**

**Industriaren ikuspuntutik ikasi duguna aintzat hartuta, oso argi dugu hornitzaileen tokiko katea sendotu egin behar dela. Ekoizpenak oinarritzat beharrezkoak diren produktuen hornikuntza ez eteteko bermeak behar ditugula.**

**Zentzu horretan, eta ekoizpen-ezarpenek beste merkatu batzuetan egoten jarraitu behar dutela jakinik ere, Euskadi *reshoring* prozesuak aztertzen ari da, eraginkorragoak izateko gaitasunen birlokalizazio-prozesuak.**

**MUNDUAN EGOTEN JARRAITU BEHAR DUGU ETA NAHI DUGU.**

**Galdera da nola egon nahi dugun. Zer ekarpen egin nahi dugun. Zer jaso nahi dugun.**

**Pandemiak eragindako krisi ekonomikoak urrezko aukera ematen digu galdera horiei erantzuteko. Zein da sustatu nahi dugun eredu**

**ekonomikoa? Eta, beraz, zein da erakutsi eta esportatu nahi dugun eredua?**

**Euskadik garapen-eredu inklusiboaren eta jasangarriaren alde lan egiten du. Basque Green Deal izendatu dugu.**

**Ekonomiaren eragileak industria izaten jarraitzen du. Fede guztia dugu harengan eta gure "obsesioa" da, jakina den bezala.**

**I+G+b jarduerarako laguntza trinkoa, Estatuko batez bestekoaren gainera, ekosistemaren oinarri den palanka da. Baita nazioartekotze-estrategia ere. Izan ere, industria-lehiakortasuna mundura ateratzen dugunari balioa ematean datza.**

**BASQUE COUNTRY markari esleitzen zaion balio erantsia: goi-teknologiako produktuaren esportazioa; giza baliabideen gaikuntza eta prestakuntza, eta egiteko moduaren gainera balioak eta, batik bat, gure herrialdearen ordezkari diren pertsonen egiteko moduaren gainera.**

**Badirudi nazioarteko mugikortasuna, nolabait, berreskuratzen ari dela. Enpresak hasiera horretarako prestatzen ari dira, ikuspegia, lehendabizi, txertaketan jarrita, eta, ondoren, enpresa bezero eta hornitzaileekiko harremanak berreskuratzean.**

**Hilabeteko epean, Eusko Jaurlaritzak 2024KO NAZIOARTEKOTZE PLANA onartuko du; haren buru da Basque Trade and Investment Euskadiko Naziortekotze Agentzia.**

**Sei jarduketa-ardatz, lehentasunezko merkatuak berreskuratu eta finkatzeko eta Asian eta beste merkatu berri batzuetan aukera berriak bilatzeko.**

**1. Enpresa-nazioartekotzeari laguntzeko tresnak.**

**2. Nazioarte jardueraren digitalizazioa**

**3. Beste merkatu batzuetara iristea, eta, horretarako, merkataritza-bulego berriak irekitzea**

**4. Pertsonak dira gure aktibo nagusi. ICEXekin elkarlanean dihardugu gaikuntza-programetan. Euskadik urtean 500 beka aktibatzen ditu, gazteak munduan lanean jo eta ke jardun ahal izateko.**

**5. Erakundeen arteko ahalik eta koordinazio handiena, administrazioaren jarduketa benetan eraginkorra izan dadin. Europako eskualdeek eginkizun aktiboa izango dute nazioarteko politikan.**

**Gobernantza hori, nire ustez, berrikusi beharko litzateke, politika ekonomiko hauetarako eta beste batzuetarako, besteak beste, Next Generation funtsen kudeaketarako.**

**6. Amaitzeko, politika publikoen koherentzia aipatu nahi nuke.**

**Ezin dugu DIPLOMAZIA bera ahaztu; erakunde-, ekonomia- eta politika-arloetan neurria emateko eskatu behar diogu, BAI, baina, batez ere, kategoria morala, alderdi humanitario batetik.**

**Ezin dugu bidegabekeria lazgarrien lekuko pasibo izan. Giza eskubideak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendaren oinarria dira, helburu unibertsal, eraldatzaile eta integratzaileekin. Egin dezagun geure, hasieratik amaierara.**

**Denon eginkizuna da, eta Euskadik elkarlanerako eskua luzatzen du.**

**ESKERRIK ASKO!**